# 10 ZESTOA → AIZARNAZABAL






## PR-Gi 142
## Zestoa → Aizarnazabal

5 km - 2 h

## PR-Gi 40
## Aizarna → Santa Engrazi

6,1 km - 1 h 40'

**PR-Gi 142**

- (0) 0 m > Zestoa (Arocena hotelaren aurretikan / Frente al Hotel Arocena)
- (1) 650 m > Akoa (Aizarna bidegurutzea / Cruce a Aizarna)
- (2) 1.560 m > Gurutzeaga
- (3) 2.940 m > Aizarna Errepidea / Carretera a Aizarna
- (4) 3.420 m > San Juan
- (5) 4.380 m > Txiriboga auzoa / Barrio de Txiriboga
- (6) 5.000 m > Aizarnazabal

**PR-Gi 40**

- (0) 0 m > Aizarna
- (1) 2.900 m > Santa Engrazi
- (0) 61.250 m > Aizarna















## PR-Gi 142 Zestoa → Aizarnazabal

Aizarnazabal eta Zestoa elkarrengandik oso hurbil dauden bi herri dira, hainbat eratan elkar daitezkeenak oinez. Ondoko PRak bi hiriguneak mendian barrena egiten duen eta ingurunearen gaineko ikuspegi interesgarriak eskaintzen dituen ibilbide erakargarri baten bitartez lotzeko bide bat erakutsiko digu. Aizarnazabaldik abiatuz gero, Urolarantz jaisten den bide nagusia hartu behar dugu, zubia eta errepidea gurutzatu, eta eskuinalderantz egin 30 bat metroan, Altzolaratseko erreka igaro arte. Bi etxe daude parean, eta bide bat haien artean; bide horrixe jarraitu behar diogu. Jarraian, 20 bat metrora, gora, eskuinaldera egiten duen bidea aurkituko dugu, ibilbidean barrena eramango gaituena. Gure aholkua, ordea, Zestoatik abiatzea da. Bertan, Arocena hotelaren parean kokatu behar da, errepidea lurpeko igarobidetik gurutzatu eta gora egiten duen bidean aurrera jarraitu. Ermita txiki batera heltzean, Akoako bailara bitxian egongo gara. Bertan, ezkerreko bidea hartu behar da eta, metro batzuen

Aizarnazabal y Zestoa son dos localidades muy próximas que cuentan con diferentes posibilidades de comunicación peatonal. El siguiente PR nos mostrará una forma de enlazar ambos núcleos a través de un atractivo recorrido de monte con interesantes vistas del entorno. Partiendo de Aizarnazabal debemos tomar la vía principal que desciende al Urola, cruzar el puente y la carretera, y avanzar hacia la derecha hasta sobrepasar la regata de Altzolarats en unos 30 m. Así, nos encontraremos frente a dos casas entre las que avanza un camino, y que deberemos seguir. A continuación en unos 20 m encontraremos una senda ascendente a la derecha que nos conducirá por el PR. Si partimos desde Zestoa, sentido que recomendamos, nos situaremos frente al Hotel Arocena, cruzaremos la carretera por el paso subterráneo y continuaremos por la vía que asciende. Al llegar a una pequeña ermita habremos alcanzado el curioso valle de Akoa. Desde aquí debemos proseguir por el camino de la izquierda,


Trukumangaina


Aizarnazabal


Ipintza

buruan, ezkerretara egin behar da berriro ere, Ertxiñara doan bidexkan gora. Gainetik hurbil dagoen muinora iritsi ondoren, merezi du pixka bat desbideratu eta gora igotzea, Izarraizko mendigunearen gaineko ikuspegirik onenetakoa baitago gailurrean; hala ere, kontuan izan beharra dago ez dagoela gailurrera doan bide argirik. Aizarnazabaleranzko bidea pixkana-pixkana jaisten da Lizasoetaundi baserrirantz eta, bertan, inguruaren eta herriaren beraren gaineko ikuspegi ederrak daude. Herria ere ber-bertan dago.

y en unos pocos metros, nuevamente a la izquierda, tomar el sendero que asciende hacia Ertxiña. Una vez alcanzado el collado próximo a la cumbre merece la pena desviarse un poco y ascender hasta ella, pues esta cima nos ofrece una de las mejores vistas del macizo de Izarraitz. Hay que anotar, sin embargo, que no hay un sendero claro que nos lleve desde aquí hasta la cumbre. El camino de descenso hacia Aizarnazabal baja poco a poco hasta el caserío Lizasoetaundi, que nos ofrecerá bonitas vistas del valle y del propio pueblo, situado ya a solo un paso de nosotros.


Akoa


Aizarna

## PR-Gi 142 Aizarna → Santa Engrazi

Aizarna hirigune txikia da, Zestoatik hiru kilometrora dago, eta bere nortasunari eta tradizioei eusten asmatu duen bakarretakoa da; herriko festak dira horren adierazgarri. Oso ingurune atseginean dago kokatuta, eta leku ezin hobea da mendian ibiltzeko. Izan ere, aurrez azaldutako ibilbideez gain, beste bidexka interesgarri bat dago (PR-Gi 40), herria inguruko baserriekin eta Santa Engraziko ermitarekin komunikatzen duena; bidexkatik gora egin ahala, Aizarna irteerarik gabeko bailara batean dagoela ohartzen gara -geologian, "polje" izena du fenomeno horrek-, eta, bitxikeria moduan, kanpandorreari buruzko xehetasun bat aipatu beharra dago: bere kokalekutik nabarmen bereizita dagoen harri bat dago bertan, aurreko alde osotik irteten dena, eta duela hainbat urte ermita jo zuen tximista baten ondorio da, hain zuzen ere. Gain horretatiko ikuspegia atsegina da zinez, eta leku berera behin eta berriz itzultzera bultzatzen gaitu bisitariok. Bailaran behera begiratuz gero, ezkerretara Izarraizko mendigunea dago, Ernio mendia atzean, eta Granadaerreka eta Altzolaratseko haran bakartia (Pagoetako Natur Parkerako atea) eskuinetara; denborak aurrera egin arren, bere izaera mantendu duen Gipuzkoako bailara urrietako bat da, eta bi burdinola daude bertan: hondakinak besterik ez dira gaur egun, baina burdinak Erdi Aroaz geroztik inguruan izan duen garrantziaren adierazgarri dira.

El pequeño núcleo de Aizarna, situado a 3 km de Zestoa, es un lugar que ha sabido mantener como pocos su personalidad y tradiciones, y sus fiestas patronales son fiel reflejo de ello. Aizarna se halla rodeada de un entorno muy agradable, y constituye un lugar ideal para el senderismo. Además de las rutas anteriormente descritas cuenta con otro sendero interesante, el PR-Gi 40, que comunica el pueblo con su entorno de caseríos y con la ermita de Santa Engrazi. Ascendiendo por el sendero nos daremos cuenta de que Aizarna está situado en un valle sin salida, fenómeno que en geología se llama *poljé*. Como nota curiosa hay que mencionar un detalle del campanario: en él podemos observar la presencia de una piedra notoriamente desencajada, que sobresale del resto de la fachada, y que quedó así como consecuencia de la fuerza de un rayo que cayó sobre la ermita hace varios años. Las vistas desde este alto son realmente gratas y nos inducen a los visitantes a regresar al lugar una y otra vez. Mirando valle abajo a nuestra izquierda observaremos el macizo de Izarraitz, detrás quedará el monte Ernio, y a la derecha se sitúa Granadaerreka, el solitario valle de Altzolarats, una de las puertas al Parque Natural de Pagoeta. Este es uno de los pocos valles de Gipuzkoa que ha mantenido su carácter pese al empuje de los nuevos tiempos. En él encontraremos dos ferrerías, hoy en ruinas, y que dan muestra de la importancia que ha tenido la cultura del hierro en la zona desde la Edad Media.



## Turismo termala Gipuzkoan
## El turismo termal en Gipuzkoa

Gipuzkoako ur termalei buruzko lehenengo aipamen historikoak XVI. mendekoak dira, eta ur termalak sendagarriak zirela zioten ordurako. Balneoterapia, ordea, XIX. mendetik aurrera bilakatu zen fenomeno sozial esanguratsu Europan, eta horrek aparteko eragina izan zuen Gipuzkoan, ur sendagarrien iturburu ugari zeudenez gero. Hainbat arrazoi egon zen balneoterapia loratzeko: batetik, kimika arloan egindako aurrerapenak ditugu, uren osaeraren eta aplikazioen berri zuzena eman zutenak, eta, bestetik, gaixotasun jakin batzuek bestelako sendabiderik ez izatea; gainera, goi klaseek ezarri zuten moda dugu. Zestoako bainuetxea 1804. urtean jaio zen, eta Gipuzkoan sortu zen lehenengoa izan zen. Izan zuen arrakasta dela-eta, behin baino gehiagotan handitu behar izan zen eta, XX. mendean, 6.000 bainulari ere biltzen zituen sasoiko. Fenomeno sozial bilakatu zen, eta unean uneko gizarteko pertsona esanguratsuak bertaratu ziren. XX. mendearen bigarren erdialdean krisialdian murgildu zen, baina aro berrira egokitu eta arrakasta lortu du berriro ere. Azkenaldian, itsasoko ura erabiltzen duten bainuetxeak ere nahiko ezagun bilakatu dira, hala nola, Zumaiakoa.

Las primeras referencias históricas sobre las aguas termales de Gipuzkoa corresponden al siglo XVI, y en ellas ya se hace mención a su carácter medicinal. Es a partir del siglo XIX cuando la balneoterapia comienza a ser un fenómeno social importante en Europa, y que adquiere especial repercusión en Gipuzkoa por la abundancia de manantiales medicinales. Las razones de ese auge de la balneoterapia son varias: por un lado destacan los avances en la química, que permiten conocer bien la composición de las aguas y sus aplicaciones, unida a la ausencia de otras curas a determinadas dolencias. A todo ello se une la moda que imponen las clases altas. El Balneario de Zestoa, inaugurado en 1804, es el primero que se levanta en suelo guipuzcoano. El éxito del establecimiento obliga a sucesivas ampliaciones, y ya en el siglo XX alcanza la cifra de 6.000 bañistas por temporada. El balneario se convierte en un fenómeno social, y a él acuden las figuras más importantes de la sociedad del momento. Tras un periodo de crisis en la segunda mitad del siglo XX el balneario se ha adaptado a los nuevos tiempos y ha renovado su éxito. En fechas recientes han adquirido igualmente notable protagonismo las estaciones termales con agua de mar, como es el caso de Zumaia.

